

UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEAK ALDI BATERAKO KOMUNIKAZIO TEKNIKARI BEHARREI ERANTZUTEKO LAN-POLTSA ERATZEKO OINARRIAK

1.- DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen helburua da lan-poltsa bat sortzea Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean komunikazio beharrei erantzuteko sor daitezkeen beharrak asetzeko. Hautapena lehiaketa-oposizio bidez egingo da.

Poltsa honen bidez, bitarteko langileekin beteko dira UEMAn sor daitezkeen komunikaziorako langilegoaren ordezkapenak, eta behin-behineko presazko premiei erantzungo zaie.

2.- BALDINTZAK

Deialdian onartua izateko eta, gero, egoki bada, lehiaketa-oposizioan parte hartzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Hamasei urte beteta izatea, eta nahitaez erretiroa hartu beharreko adinera ez iristea.
- b) Goi-mailako titulua izatea. Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 15. Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera, lizentziaturako hiru ikasturte gaindituta izatea unibertsitate-diplomadun tituluaren baliokide da.
- c) Europar Batasuneko kide diren estatuetak baten herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraikiz, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Parte hartu ahal izango dute, era berean, Europar Batasuneko kide diren estatuetak herritarren ezkontideak, zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; halaber, bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, edo adin horretatik gorakoak, baina bere pentzuan bizi direnak.

- d) Diziplinazko espedientearen bidez inongo Administrazio Publikoren zerbitzutik baztertua ez izatea, eta funtzio publikoak betetzeko ezgaiturik ez egotea.
- e) Lanpostuen eginkizunak normaltasunez betetzea galaraziko dion gaixotasunik nahiz muga fisiko edo psikikorik ez izatea.
- f) Bateriaezintasunik edo ezgaitasun legalik ez izatea, Herri Administrazioaren zerbitzuan dagoen pertsonalaren bateraezintasuna arautzen duen abenduaren 26ko 53/1984 Legean xedatutakoaren arabera. Dena den, kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezina egiten ari direnek aukeratzeko eskubidea erabili ahal izango dute, aipatutako legearekin bat etorriz.

Oinarri honetan zerrendatutako baldintza, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean bete beharko dira, eta kontratua sinatu bitartean mantendu.

- g) 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatua izatea. Baldintza hau lehiaketa-oposizioan zehar egiaztatzeko aukera izango da, alegia, HAEE-IVAPen deialdian aurkezteko aukera eskainiko zaie ordura arteko lehiaketa-oposizioko faseak gainditu dituzten izangaiei.
- h) B motako gidabaimena eta autoa erabilgarri izatea

3.- ESKAERAK

Eskaerak UEMaren Azpeitiko egoitzan aurkeztu beharko dira. Helbidea:

Enparantza nagusia 11
Azoka plaza, 6. bulegoa.
20730. Azpeitia (Gipuzkoa)

Gainera, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan aurreikusitako bestelako edozein eratan ere aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

Oinarri hauen eranskinean dagoen eskaera-orriarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharra egongo da:

- a) Nortasun Agiriaren fotokopia
- b) Deialdiaren oinarri-arau berezietan eskatzen den titulazioen kopia eta merituek kreditatzeko beharrezkoak diren ziurtagiriak.

Eskaerak aurkezteko epea urriaren 3tik 13ra bitartekoa izango da.

4.- EPAIMAHAIA

Epaimahai kalifikatzailea honela osatuta egongo da:

Mahaiburua:

- Nora Palmitano, Zestoako euskara teknikaria

Mahaikoak:

- Xabier Azkue, Zumaiako euskara teknikaria
- Miren Segurola, UEMako koordinatzailea (aholkulari)
- UEMako teknikari bat, aurrerago zehazteko (aholkulari)

Idazkaria:

- Aitziber Arnaiz, Oiartzungo euskara teknikaria

Epaimahaiak adituak deitzeko aukera izango du.

5.- AUKERATZE-PROZESUA

Izangaiak hautatzeko prozedurak hurrengo aldiak izango ditu:

- a) Oposizioaldia
- b) Lehiaketaldia

Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo da.

Epaimahaiak ariketak egiteko deialdian jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiak –baita ezinbesteko arrazoiengatik bada ere–, hauta-prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

OPOSAKETA ALDIA

- **Lehenengo ariketa (nahitaezkoa eta baztertzaila):** Ariketa honek zati bi izango ditu:

1. zatia: Gai-zerrendako gaien inguruko 30 galderako testa. 10 puntu balioko ditu, baztertzaila izango da, eta gutxienik 5 puntu atera beharko dira.
2. zatia: Eranskinetako gai zerrendatik, epaimahaiak aukeratuko duen/dituen gaiari/gaiei buruzko proba praktikoa bat edo gehiago egin beharko da/dira. Gehienez 40 puntu balioko ditu, eta gutxienez 25 puntu lortu beharko dira gainditzeko.

- **Bigarren ariketa (nahitaezkoa):** Elkarrizketa pertsonala

Gehienez 20 puntu balioko ditu.

- **Hirugarren ariketa (derrigorrezkoa eta baztertzaila):** Euskarako proba. Izangaien euskara-maila neurtzeko ahozko eta idatzizko proba egingo da. Derrigorrezko 4. hizkuntza eskakizunari dagokion euskara-maila dutela egiaztatu beharko dute. Ez da punturik emango, eta izangaiak gai edo ezgai sailkatuko dira. Proba hau gainditzen ez dutenak hautaketa bidetik baztertuta geldituko dira.

Proba hau HAEE-IVAPek abenduan Gipuzkoan duen deialdi bateratuan egingo da.

Ez dute proba hau egin beharrik izango ziurtatzen dutenek 4. hizkuntza eskakizunarekin parekatutako agiriren baten jabe direla, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzeko apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuak jasotakoaren arabera.

Egiaztapen hori proba hasi baino lehen aurkeztu beharko da.

LEHIAKETA-ALDIA

Eskaerak aurkezteko epe barruan hautagaiek alegatu eta behar den moduan egiaztatu dituzten merituak aztertu eta baloratuko dira, honako baremo honen arabera:

Esperientzia (20 puntu):

- Komunikazio-teknikari gisa egindako lanetan izandako esperientzia, 0,5 puntu hilabeteko: 20 puntu gehienez.

Prestakuntza osagarria (10 puntu):

- Deitutako lanpostuan garatu beharreko eginkizunekin zuzeneko zerikusia duten ikastaroak:
 - 10 eta 50 ordu bitartekoak: 0,5 puntu, 6 puntu gehienez
 - 50 ordu baino gehiagokoak, 1 puntu. 4 puntu gehienez.
- Emandako ordurik azaltzen ez bada, ez da hartuko kontuan ikastaroa.

6.- ONARTUEN ZERRENDA ETA KONTRATATZEKO PROZEDURA

Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, UEMAko zerbitzu administratiboak ebazpena emango du onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendarekin. Baztertuen zerrendan daudenek 5 eguneko epea izango dute, zerrenda UEMAren

webgunean argitaratzen den egunetik kontatuta, baztertuta geratzeko arrazoia izan diren akatsak edo hutsak konpontzeko edo zerrenden kontrako erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda horiek automatikoki bilakatuko dira behin betiko. Erreklamaziorik baldin badago, beste ebazpen bat emango da erreklamazio horiek baieztatzeko edo ezeztatzeko. Ebazpen hori ere aurrekoaren modu berean argitaratuko da.

Proba baztertzaileak gainditu dituzten izangaien azken kalifikazioa oposizio-aldiko eta lehiaketa-aldiko puntuak batuta aterako da, eta kalifikazio horrek behin betiko puntuazio hurrenkera erabakiko du.

Epaimahaiak, merezimenduak baloratu eta ariketak kalifikatu ondoren, behin betiko emaitza iragarriko du. Era berean, hautaketa-prozesua gainditu duen izangai bakoitzaren behin betiko puntuazioa argitaratuko du.

Izangaiek behin betiko emaitzak argitaratu ondoren, 5 eguneko epea izango dute epaimahaiaren aurrean erreklamazioak aurkezteko. Epe hori bukatu eta gero, epaimahaiak gainditu duten izangaiekin, puntuazioaren arabera, behin betiko lan-poltsa proposamena egingo dio Zuzendaritza Batzordeari.

Izangaietako inork ariketa baztertzaileak gaindituko ez balitu, epaimahaiak lan-poltsa hutsik laga dezake.

7.- PROZESUAREN ARGITALPENAK

Prozesu honetan argitaratu beharrekoak (oposizioaldiko emaitzak, lehiaketaldiaren emaitzak...) Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen webgunean argitaratuko dira (www.uema.eus).

Datu Pertsonalen Babeserako araudiari jarraituz, edozein izangai edo parte hartzailek izango du bere datuak eskuratu, zuzendu edo ezabatzeko eskubidea. Horretarako, eskaera aurkeztu beharko du helbide honetara bidalitako idatziaren bitartez: administrazioa@uema.eus.

8.- GORABEHERAK

Epaimahaiari ahalmena emango zaio sortzen diren zalantzak ebazteko eta hautapen-prozesua ondo bideratzeko eta burutzeko behar diren erabakiak hartzeko. Oinarri hauetan aurreikusi gabeko gaietan, arau hauetan ezarritakoari lotuko zaio hautapen-prozesua: 7/2007 Legea, apirilaren 12koa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarena; 6/1998 Legea, uztailearen 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa; Administrazio Publikoaren zerbitzupeko pertsonalaren sarrera arautzen duen Erregelamendu Orokorra, 364/1995 Dekretuak, martxoaren 10ekoak, onartua; eta 86/1997 Dekretua, apirilaren 15eko, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.

BERDINKETA EGOERAK EBAZTEKO IRIZPIDEAK

- a) Lehenik, administrazioaren jardueraren kidego, eskala, maila eta kategorietan emakumeei lehentasuna emango zaie, baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, eta kidego, maila, eskala eta kategoria horietan emakumeak % 40 baino gutxiago badira. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituztenean –nolanahi ere, ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko bereizkeriarik– kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.
- b) Bigarrenik, ariketa praktikoan puntu gehien lortu duen izangaiak izango du.
- c) Hirugarrenik esperientzian izandako puntuazioa (esperientzia profesionala).
- d) Laugarrenik, merezimenduetan izandako puntuazioa (formazio osagarria).
- e) Bosgarrenik, zozketa.

9.- INPUGNAZIOA

Deialdi hau, bertan ezarritako Oinarriak eta horietatik eta ebaluazio-batzordearen jarduketatik eratorritako egintza administratibo guztiak inpugnatu ahal izango dira 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, ezarritako moduan eta kasuetan.

10.- DATUEN TRATAMENDUA

Hautapen-prozesuan parte hartzeak esan nahi du onartzen dela eskaeran jasotako datu pertsonalak tratatzea hautapen-prozesua aurrera eramateko behar diren izapide guztietarako. Hala ere, onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak argitaratzeari dagokionez, eta parte-hartzaileek prozesuaren fase bakoitzean lortutako emaitzak argitaratzeari dagokionez, NA zenbakiaren bidez adieraziko da identitatea.

Datuak kontsultatzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubidea egikaritzeko idazki bat bidaliko da UEMAko Azpeitiko bulegora: Enparantza nagusia 11, Azoka plaza, 6. bulegoa. 20730. Azpeitia (Gipuzkoa).

Edonola ere, eskaera sinatzeak esan nahi du eskatzaileak badakiela eta onartzen duela bere datu pertsonalak aipatutako xederako tratatuko direla.

11.- LAN-POLTSAREN FUNTZIONAMENDUA

Behin betiko lan-poltsaren funtzionamendua honako hau izango da:

- Komunikazioko langileak Azpeitiko bulegoan lan egingo du.
- Izangaiak lanean dagoela frogatuz gero, lan-poltsan mantentzeko aukera izango du zerrendan duen hurrenkeran, baldin eta deitzen zaionetik gehienez ere 3 eguneko epean lanean dagoela justifikatzen badu. Justifikatzen ez badu, lan-poltsatik kanpo geratuko da.

- Ezezko justifikatuetan, izangaiari behin-behineko baja emango zaio, eta izangaiak berak deitu beharko du UEMAREN egoera aldatu zaiola eta lan-poltsan alta eman nahi duela adieraziz.
- Izangaiak aurkitu ahal izateko, telefono zenbaki bat eta helbide elektroniko bat eman beharko ditu. Datu hori prozesuan parte hartzeko instantziatik hartuko da, baina izangaiak datuak eguneratu edota aldatu ditzake idatziz UEMARI jakinarazita.
- Kontratu bat eskaintzeko gehienez bi saiakera egingo dira gutxienez lau orduko tartearekin.

Dei bakoitzaren oharra jasoko da, gorabeherak, eguna eta ordua aipatuta.

Izangai batekin harremanetan jartzerik lortu ez bada, zerrendan hurrena dagoenari deituko zaio eskaintzen den lanpostua bete arte.

- Izangai batekin harremanetan jartzea lortu ez bada, zerrendan zuen postuari eutsiko dio.
- Izangaiak lan-poltsan duten hurrenkera UEMAK ez du errespetatu beharrik izango, ordea, lan-poltsan dagoen izangai batek UEMAKo langile bat ordezkatzeko kontratua izan badu, eta kontratu hori bukatu eta hurrengo bi hilabeteko epearen barruan, langile berdina ordezkatzeko premia berriro sortu eta UEMAK ordezkatzera erabakiz gero. Kasu horretan kontratua aurretik ordezkapena egin duen izangaiari eskaini ahalko dio UEMAK.

Deialdi honen bidez ateratzen den behin betiko lan-poltsak 5 urteko balioa izango du, baldin eta UEMAK beste lan-poltsa baterako deialdirik egiten ez badu. Kasu horretan, lan-poltsa indarrrik gabe geratuko da deialdi berriaren arabera sortutako lan-poltsa berria onartutakoan. Unean uneko Zuzendaritza Batzordeak lan-poltsaren indarraldia luzatu ahalko du beste bi urtez.

12.- PROZESUAREN EGUTEGIA

Prozesu honi dagokion behin-behineko egutegia hauxe izango da eta azken uneko aldaketarik baldin balego www.uema.eus webgunean argitaratuko da.

| Zer? | Data | Non? |
|---|-------------------------------|---|
| Izena eman | 2022/10/03tik 2022/10/13ra | Postaz bidali ondoko helbidera: UEMAREN bulegoa Enparantza nagusia 11 Azoka plaza, 6. bulegoa 20730 Azpeitia (Gipuzkoa) |
| Baztertu eta onartuen behin-behineko zerrenda | 2022/10/14 | Informazioa www.uema.eus helbidean |
| Erreklamazioetarako epea | 2022/10/21 | Postaz bidali ondoko helbidera: UEMAREN Azpeitiko bulegoa Enparantza nagusia 11 Azoka plaza, 6. bulegoa 20730 Azpeitia (Gipuzkoa) |
| Baztertu eta onartuen behin betiko zerrenda | 2022/10/24 | |

| | | |
|------------------------------------|------------------------------|--|
| Lehen ariketa egiteko data | 2022/10/26 | Informazioa www.uema.eus helbidean |
| Lehen ariketaren emaitza | 2022/10/28 | Informazioa www.uema.eus helbidean |
| Ariketa praktikoa egiteko data | 2022/11/03 | Informazioa www.uema.eus helbidean |
| Ariketa praktikoarene emaitzak | 2022/11/07 | Informazioa www.uema.eus helbidean |
| Elkarrizketa egiteko data | 2022/11/8-9 | Informazioa www.uema.eus helbidean |
| 4. Hizkuntz Eskakizuna egiaztatzea | Prozesuan zehar zehaztuko da | |
| Behin betiko emaitzak | Prozesuan zehar zehaztuko da | Informazioa www.uema.eus helbidean |

Oharra: Azterketa idatzia ordenagailuz egingo da (Word, Excel, Wordpress, Photochop, InDesing edota Canva erabiltzea eska daiteke), eta azterketara ordenagailu eramangarria ekartzea ezinbestekoa izango da. Inork arazorik badu horretarako, jarri aurrez UEMAKo Azpeitiko bulegoarekin harremanetan (943816699)

I. ERANSKINA - GAIAK

1. 10/1982 Oinarrizko Legea, euskararen erabilera arauzkotzekoa.
2. 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa
3. "6/1989 Legeak Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, Administrazio publikoetako hizkuntza normalkuntzaren gainean duen araubidea".
4. 86/1997 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
5. 103/2017 Foru Dekretua, euskararen erabilera arautzen duena Nafarroako administrazio publikoetan
6. EAEko 2/2016 legea, apirilaren 7koa, Euskadiko toki erakundeei buruzkoa. Udal legea. Hizkuntzari dagokiona.
7. EAEko 179/2019 garapen dekretua.
8. Herritarraren hizkuntza eskubideak, administrazioaren betebeharrak eta eskubideen defentsarako erakundeak.
9. Euskalgintzako elkarteak eta zereginak.
10. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea: hastapena; izaera; helburu orokorrak; irizpideak; UEMA osatzen duten udalerrietako ezaugarri eta errealitate soziolinguistikoak, sozioekonomikoak eta hizkuntza irizpideak...
11. Udalerrri euskaldunek euskararen berreskurapenean duten garrantzia eta jokatu behar duten papera.
12. Hizkuntza ekologia.
13. Lurralde antolaketa eta hizkuntza.
14. Udalerrri euskaldunen bilakaera soziolinguistikoa.
15. Komunikazio plana. Kontzeptua, egitura eta martxan jartzea.
16. Prentsaurreko bat diseinatu eta prestatzea.
17. Sare sozialak. Tokiko komunikazio instituzionalean ezartzea eta garatzea. Administrazioaren arloko estrategiak. Profilak dibertsifikatzea eta publikoaren eta mezuaren arabera egokitzea.
18. Sare sozialak. Sare sozialetara aplikatutako eduki digitalak sortzea komunikazio instituzionalaren esparruan. Sare sozialak kudeatzeko tresnak. Emaizten ebaluazioa eta jarraipena.
19. Komunikazioa, herritarren parte-hartzea eta teknologia berriak
20. Webguneak sortu eta kudeatzea: wordpress
21. EAEko publizitate eta komunikazio ez sexistarako autorregulaziorako kode deontologikoa.
22. Euskararen erabilera ez sexista. Gidaliburua. Emakunde.
23. Diseinua: photoshop, InDesign, Canva eta ilustrator.
24. Bideogintza. Irudiak jaso, bideoak ekoiztu eta sareratzea.
25. Moodle plataforma: kudeaketarako oinarrizko ezagutza

II. ERANSKINA. ESKABIDE-ORRIA

UEMAko komunikazio teknikari lan-poltsa

Eskatzailea:

| | |
|-----------------------|------------|
| Izen-abizenak: | |
| Helbidea: | Herria: |
| NA zenbakia: | Telefonoa: |
| Helbide elektronikoa: | |

Ezinbesteko prestakuntza:

| |
|------------------------|
| 4. Hizkuntz Eskakizuna |
| Goi mailako titulazioa |

Erakunde publikoetan lan-esperientzia:

| Erakundea | Lanpostua | Noiz hasi | Noiz amaitu |
|-----------|-----------|-----------|-------------|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

Enpresa pribatuetan lan-esperientzia:

| Enpresa | Lanpostua | Noiz hasi | Noiz amaitu |
|---------|-----------|-----------|-------------|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

- Datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango duela ondorengo helbidera zuzenduta: administrazioa@uema.eus

Azpeitian, 2022koren....an

Sinadura